


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai abenduaren 5ean

Architecture Effects

Architecture Effects

- 2018ko abenduak 5–2019ko apirilak 28
 - Komisarioak: Manuel Cirauqui, Arte Arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa, eta Troy Conrad Therrien, Arkitektura eta Ekimen Digitalen Arte Arduraduna, Solomon R. Guggenheim Museum, New York
-
- XXI. mendearen hasierako arkitektura, artea eta *storytelling* delakoari eskainitako erakusketa honek garai post-digitala aztertzen du, Guggenheim Bilbao Museoa inauguratu zenetik bi hamarkada igaro diren honetan; izan ere, teknologia modu berritzailean erabili zen haren eraikuntzan.
 - Erakusketa honen atze-ohal dokumentala Airlock deitzen da, eta 1997. urtea du ardatz; dokumentu eta artxibo-material garrantzitsuen bitartez, gune horretan jasota daude eraldaketa digitalaren mugarrak hainbat arlotan: biologia, espazioaren esplorazioa, pop kultura, okultismoa, medikuntza, finantzak, diseinua edo ekonomia politikoa, baita teknologia bera ere.
 - Lorategia izango da erakusketaren espazio nagusia; bertan, artelanek eta arkitektura garaikideak mugimendun irudiak, eskulturak, prototipoak, animazioak, denbora errealeko bideoak eta 1:1 eskalan egindako maketak baliatuko dituzte.
 - Erakusketa bere muga fisikoetatik harago hedatzen da Burbuila aplikazioaren bitartez. Erakusketarako sortu da hori berriaz, eta proiektuaren hainbat material eta geruzetarako sarbidea da; gainera, Lorategia eta Airlock ataletan aurkeztutako artelanen inguruko dokumentazioa jasotzen du.

Guggenheim Bilbao Museoa *Architecture Effects* aurkezten du, arkitekturari, arteari eta *storytelling* delakoari eskainitako erakusketa, XXI. mendearekin batera sortutako testuinguru kultural eta teknologikoaren baitan. Erakusketaren abiapuntua galdera intemporal bat da: Zerk bilakatzen du arkitektura eraikuntza hutsa baino gehiago?

Erakusketak gaur egungo egoera aztertzen du, Guggenheim Bilbao Museoa arkitekturaren efektuekiko herritarren interesa berpiztu zuenetik bi hamarkada igaro diren honetan. Eraikinaren diseinu, eraikuntza-lan eta irudi-hedapenerako modu berritzailean erabili zen teknologia; era berean, informazio- eta komunikazio-teknologiaren emaitza izan zen Museoa, eta teknologia horiek berak izan ziren azkenean XXI. mendeko giro kulturala definitu zutenak. Arkitekturaren, arte garaikidearen eta *storytelling* delakoaren balio sozialak jasandako erabateko aldaketen lekuko da Frank Gehryren eraikina, baita aldaketa horien beren protagonistetako bat ere.

Erakusketaren diseinuak artelanak eta dokumentuak konbinatzen ditu, Guggenheim Bilbao Museoa aberastasun eta magiari, eta hark maila globalean izandako eraginari, zor zaiona aitortzen dion gunea sortzeko, arkitektura garaikidea ardatz. Erakusketak XXI. mendearekin batera sortutako kulturaren garapena aztertzen du: gure munduko oinarri logistiko eta materialetik abiatuta, identitatea, kontzientzia

eta errituala bezalako gaiak lantzen ditu, arkitekturaren konplexutasun ezkutua ulertzera emateko helburuarekin.

Architecture Effects erakusketak inguru garaikidea truke-leku gisa aurkezten du, materialaren eta birtualaren arteko, antzinakoaren eta etorkizunekoaren arteko truke-leku bezala: espazio eta denborari dagokionez fisikoki nahiz psikikoki hiperkonektatuta dauden norbanakoz jositako lurraldea da. Bide-gurutze horretan sortzen baita, hain zuzen, pentsamendu experimental eta espekulatiboa.

Elkarri lotutako hiru lurraldeetan —Airlock, Lorategia eta Burbuila—, erakusketak honako artisten lanak biltzen ditu: Nina Canell, Frida Escobedo, Mikel Eskauriaza, Didier Faustino, Frank O. Gehry, Lynn Hershman Leeson, Oliver Laric, Leong Leong, MOS (Michael Meredith, Hilary Sample), MAIO Architects, Nemesis, PWR Studio, eta Jenna Sutela; horrez gain, honakoen ekarpenak ere aurkituko ditugu: Ashley Mendelsohn, John Menick, Venkatesh Rao, Gordon White eta Manuel Cirauqui eta Troy Conrad Therrien komisarioak. Diseinuz eta aholkularitza grafikoaz Wkshps arduratu da.

ATALAK

Airlock

Espazio hau erakusketaren alderdi garaikidearen ataria eta denbora-kapsula iradokitzailea da aldi berean, eta teknologia eta mendebaldeko zibilizazioak jasandako hainbat funtsezko eraldaketa aurkezten ditu ardatz bakarra baliatuta: 1997. urtea. Guggenheim Bilbao Museoak ateak zabaldu zituen urtea, arkitekturaren historiako inflexio-puntua ez ezik, prisma ia profetikoa da: paradigma sortu-berriak eta diziplina arteko mutazioak islatzen ditu, baita postdigitala eta postgizatiarra eta paranormala dena ere.

Airlock guneak irudikatzen du zer baldintza teknologiko eta kulturaletan garatu zen Guggenheim Bilbao Museoa, ia berehala ikono global bihurtzeko. Espazio honek sarrera gisa balio du, eta bisitaria prestatzen du erakusketako artelan eta arkitektura garaikideei aurre egin eta horiek hobeto ulertzeko.

1997ko mugari teknologiko eta kultural horien atal eta dokumentuek denbora-ardatz bat eskaintzen diote bisitariari; erreferentzia horretatik abiatuta, ondorengo bi hamarkadetako eraldaketa zorabiagarria balioesteko aukera izango du. Gaur egungo munduaren kultur forma ugari 1997. urtea izan zuten hasiera-puntu: adimen artifizialak munduko xake-txapeldunari lehenengoz irabazi zion, eta lehenengoz klonatu zen ugaztun bat; planeta-esploraziorako lehen robota agertu zen, eta lehen aldiz filtratu zen Interneten pertsonaia publiko baten sexu-edukiko bideoa; gainera, telerealitatearen hazia erein zen ikus-entzule gehien zituzten tarteetan. Aipatutako esperimentu horien heltzea dago erakusketako artelan garaikide bakoitzaren atzean, eta, aldi berean, obra horien parte da. Atze-oihal dokumentalak hainbat erreferente biltzen ditu, arlo desberdinen ordezkari: eraldaketa digitala, biologia, espazioaren esplorazioa, pop kultura, okultismoa, medikuntza, finantzak, diseinua edo ekonomia politikoa; horretarako, bideoak, audio-erregistroak, objektuak, artxibo-materiala eta gailu historikoak jasotzen ditu.

Espazio honetan diagrama bat nagusitzen da, 1997. urtea kultura, teknologia eta politika aldetik definitu zuten zeinu, argazki, liburu eta beste objektuekin. Urte hartako albisteen hainbat bideo-zatik osatzen dute sarrera-gune honetako esperientzia; horrekin batera, aukera dago Frank O. Gehry-k diseinatutako

Guggenheim Bilbao Museoaren exekuzio-proiektuaren inguruko dokumentazio zabala ikusteko, baita “Guggenheim efektua”ren ingurukoa ere.

Lorategia

Erakusketaren zati nagusia espazio argi, aktibo eta dinamiko bat da, non gure garaiko artista eta arkitektoen lanak aurkezten diren. Arkitektura erakusketetan aurkeztu ohi diren marrazki, maketa eta dokumentuen ordez, *Architecture Effect*sek diziplina honen inguruko pentsamendu garaikidea biltzen du, 1:1 eskalan egindako lanekin batera. Era berean, artista garaikideek egindako piezek agerian uzten dute kezka arkitektonikoen zabalkundea, eraikitako espazio identifikagarri eta estandarizatutik harago. Animazioa, performancea eta posthumanismoa funtsezko elementuak izango dira muntaia anitz eta inspiratzaile honetan.

Bertan izango diren lanen artean hiru proiektu handi nabarmentzen dira, erakusketa honetan lehenengoz ikusgai egongo direnak. Frida Escobedoren *Bestea* lanak Mexiko Hiriko eraikin enblematiko baten kristalezko fatxada originalaren zatiak dakartzkigu. Erabateko anakronismoz, Escobedoren piezak memoria materialaren geruza desberdin eta ia abstraktuak ateratzen ditu argitara, gure garaiko hiri-historiaren gaineko ikuspegi arkeologikoa eskaintzen dituen bitartean. *Seinalerik gabeko denda*, New Yorkeko MOS enpresak egina, hibrido garaikide bat da, eta hainbat arkitektura primitibo fusionatzen ditu “psychomanteum” bat sortzeko, hau da, kontenplazio espiritualerako gune bat. Obra hau tipologia nomada baten barruan sartzen da, estepako herrien kokalekuetako denden antzera, baina bizileku horien itxura tradizionalik gabe. Hala eratu dute bizitegi hau, bi sinbolo arketipiko —gurutzea eta zirkulua— konbinatzen dituen oinarriarekin; oihal futurista eta fluoreszente bat da estalkia, Stoll oihalgintza-enpresa berritzaileak modu digitalean sortu eta ehundua. Metal-zuntzez eginda dago MOSen denda, eta Faradayren kaiolaren funtzioa betetzen du, oztopatu egiten baititu sakeletan daramatzagun antenetara heltzen diren seinaleak, gure barne-errealitatean gorderik dauden seinaleak areagotzeako. Izan ere, gainean daramatzagun gailuek seinale-hartzaile bihurtzen gaituzte gizakiok, intsektuen antzera.

Leong Leong-en pieza, *Flotazio-tanga 01*, kapsula indibidual inklinatu bat da bere aldetik, altzairuz eta apar isolatzailez egina. Barruan dagoenari haren “sakoneko nia” esploratzeko aukera eskaintzen dio egitura honek, eta agerian jartzen du arkitekturaren gaitasun psikoaktiboa, baita kanpoko espazioarekin duen harreman estua ere. Funtzio psikotropikoa arkitektura-mota klasiko batekin —bainuontzia edo terma— konbinatzen du Leong Leongen prototipoak, eta hala, gorputz eta gogo birprogramatzeko egitura eraginkor bilakatzen da, baita kontzientzia lantzeko tresna ere. Lorategiak orainari heltzen dio, objektu sintomatiko eta egitura efikazen bitartez. Zentzu historikoaren premia- eta galera-sentsazioek ezaugarritzen dute gure orainaldia; hain zuzen ere, espazio honetako obrek sentipen horiek iradokitzen dizkigute, eta gure garaiko tentsioak gainditzeko moduak iradokitzen.

Arte- eta arkitektura-lanek mugimendudun irudiak, eskulturak, prototipoak, animazioak, denbora errealeko bideoa eta 1:1 eskalan egindako maketak baliatuko dituzte.

Obren egileak: Nina Canell, Frida Escobedo, Didier Faustino, Lynn Hershman Leeson, Oliver Laric, Leong Leong, MAIO Architects, MOS (Michael Meredith, Hilary Sample), Nemesis eta Jenna Sutela.

Burbuila

Erakusketa bere muga fisikoetatik harago hedatzen da Burbuila aplikazioaren bitartez. Proiektuaren hainbat material eta mailetarako sarbidea da hori; gainera, Lorategia eta Airlock ataletan aurkeztutako artelanen inguruko dokumentazioa jasotzen du. Erakusketan ibiltzeko hainbat irakurketa eskaintzen ditu Burbuilak, baita ikusgai dauden artelanen inguruan sakontzen duten hezkuntza-materialak eta itzal handiko artista, kritikiko eta pentsalariei berariaz agindutako testuak ere.

Erakusketarako berariaz sortu da Burbuila, eta museo-guneko hainbat gailu eta balibidek bete ohi dituzten funtzioak batu eta hedatzen ditu: entzuteko gida, erakusketako katalogoa, didaktika edo *microsite* delakoa. Aplikazioa presente dago erakusketan, eta haren baitako jarduera sustatzen du hainbat dokumenturen bitartez: gonbidatuen ekarpenak, arte ardurako saiakerak, artisten inguruko informazio gehigarria, edukiak hiperestekekin, etab. Hori guztia eskuragarri egongo da hainbat formatutan aldi berean, ahots sintetizadore automatiko bat tarteko (testua ahots bihurtzeko teknologia). Proiektu honetan haien ahotsa ipini duten kritikiko, idazle eta artisten artean daude John Menick, Nemesis, PWR Studio, Venkatesh Rao eta Gordon White. Burbuilak, halaber, Manuel Cirauqui eta Troy Conrad Therrien erakusketaren komisarioek idatzitako saiakera kritikoa ere jasotzen ditu, Ashley Mendelsohn komisario laguntzaileak egindakoarekin batera.

DIDAKTIKA

Erakusketa honek baliaitutako ikuspegi digitalarekin bat, bisitariak smartphonearen bitartez eskuratu ahalko dituzte Didaktika guneko edukiak. Aplikazioa deskargatu ostean, Bubble atalera joan eta “Ba al zenekien...?” fitxa aurkituko dute: bertan bilduta dago erakusketako artelan gehienak sortu dituzten artista, arkitekto, diseinatzaile eta diziplina anitzeko taldeen inguruko informazio hautatua. Informazio hori Museoaren webgunean ere egongo da eskuragarri.

Jarduerak

Mahai-ingurua artista eta arkitektoekin (azaroak 30)

Erakusketako artista, arkitekto eta komisarioek iritziak partekatuko dituzte “Bilbo efektua” deritzonaren inguruan, baita sormenerako egun dauden espazioen inguruan ere.

Partekatutako hausnarketak

- Arte arduradunen ikuspegia (abenduak 12): Manuel Cirauqui, erakusketaren komisarioa.
 - Funtsezko kontzeptuak (abenduak 19): Luz Maguregui, Museoko Hezkuntza koordinatzailea.
- *Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Prozesu eszenikoak: Dantza *Puzzling* (abenduak 15 eta 16)

Puzzling dantza-piezaren estreinaldi erabatekoa, erakusketa honetarako Blanca Arrieta, Mai Ishiwata eta Robert Jackson-ek sortu eta interpretatua.

Sormen-saioak: Argi-efektuen tailerra (otsailak 2 eta 9)

Miren Arenaza euskal artistak bi saioko tailer bat eskainiko du argiak espazio eta eskulturetan duen eraginaren inguruan; bertan, parte-hartzaileek aukera izango dute haien argi-instalazio propioarekin frogak egiteko.

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus
(prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Architecture Effects
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

1. Mikel Eskauriaza

Bilbo, circa 1997 (Bilbao, circa 1997), 2018

Diapositiba-proiektzioa

Neurri aldakorrak

Artistaren eskaintza

© Mikel Eskauriaza



2. Nina Canell

Azal galduak (H) (xeheetasuna), [*Shedding Sheaths (H)*, (Detail)], 2015

Zuntz optikozko kablearen azala, hormigoia

Neurri aldakorrak

Eskaintza: artista; Galerie Barbara Wien, Berlin; Daniel Marzona, Berlin;

Mendes Wood DM, São Paulo

© Nina Canell, VEGAP, Bilbo, 2018.

Argazkia: Robin Watkins



3. Didier Faustino

Etxea ez da zuloa (A Home Is Not a Hole), 2016

Instalazioa: eukalipto enbor zurituak, urki-kontratxapatua, mihisea, eltxo-sarea, feltroa eta argi fluoreszenteak

600 x 700 x 400 cm

Erakusketa honetarako berariaz sortua: *La maison magique*, Maison de la Culture du Japon à Paris, 2016.

Eskaintza: artista eta Michel Rein, Paris/Brusela; Galeria Filomena

Soares, Lisboa; Parque Galería, Mexiko Hiria

© Didier Fiúza Faustino, VEGAP, Bilbo, 2018.



4. Didier Faustino


Ezabatu zure burua (Delete Yourself), 2018

Errotazio bidez moldekatutako polipropilenoa

68,5 x 48 x 71 cm

Eskaintza: artista eta Michel Rein, Paris/Brusela

© Didier Fíúza Faustino //Mésarchitecture, VEGAP, Bilbo, 2018.



5. MAIO Architects

5 metroko zutabe flotatzaileak (5 m Floating Columns), 2015

Bost heliodun egitura pneumatiko bozgorailuekin

Altuera: 5 m x diametroa: 1,1 m, bakoitza

Eskaintza: MAIO, Bartzelona

© MAIO Architects



6. Oliver Laric

Tartetasuna (Betweenness), 2018

HD bideoa

Eskaintza: artista eta Tanya Leighton, Berlin

© Oliver Laric



7. Oliver Laric

Giza-txakurra (Hundemensch), 2018

Poliuretanoa eta pigmentua

53 x 52 x 58 cm

Ale bakarra

Eskaintza: artista eta Tanya Leighton, Berlin

© Oliver Laric

Argazkia: Gunter Lepkowski



8. Leong Leong

Flotazio-tanga 01 (Float Tank 01), 2018

Altzairu herdoilgaitzezko tanga industrialia hainbat materialekin, ura eta

Añanako Gatz Haraneko gatza

267,5 x 231,7 cm (oinarria); goiko diametroa: 231,7 cm; gehieneko

altuera: 204,7 cm; gutxieneko garaiera: 70,9 cm

Eskaintza: Leong Leong, New York

© Leong Leong



9. Lynn Hershman Leeson

Lehenaldia (Past Tense), 2014

Sarean oinarritutako multimediatiko artelana (Mac mini, eskuko telefonoa, proiektagailua, sentsorea, webcam eta bozgorailuak)

20 x 48 x 48 cm

Eskaintza: artista eta Bridget Donahue, New York

© Lynn Hershman Leeson

